

Aspaldiko adiskideak dira poesia eta musika. Eta euskal hizkuntzan gehiago. Maiz jarri dituzte musikariek poeten hitzak gure belarrietan eta ahoetan. Kantuz zabaldu da maiz euskal poesiaren muina.

Eta azken Durangoko azokak adibide eder bi utzi digu gure entzumenaren gozamenarako. Lehenak, esango nuke nik, iraganaren antologia ederra egin duela: Antton Valverde eta Anjel Lertxundik osatu duten '3L: Lauaxeta, Lizardi, Lete' DVD-a da. Bigarrenak, ordea, etorkizunerako bideak zabaldu ditu: Kirmen Uribe, Bingen Mendizabal, Mikel Urdangarin eta Rafa Ruedaren laguntzaz ondu duen 'Jainko txiki eta jostalari hura' da. Poesiaz gozatzeko aukera bete bi.

'3L: Lauaxeta, Lizardi, Lete' emankizuna Pamiela etxearen eskutik datorkigu bere 'Literatura & Musika' sailean argitaratua. Ezagunak dira Antton Valverde Lauaxetaz eta Lizardiz egindako emanaldiak. Orain Anjel Lertxundiren hitzek, sarrera labur bezain maitasuek haren musikaz berriro gozatzeko aukera eman digute. Egia da ezagunak direla 'Mendigoxaliarena', 'Langile eraildu bati' eta berria 'Neguko gaba' poemaren musika. Ez dira gutxiago, 'Oia', 'Baso itzal' edo 'Asaba



zaarren baratza'. Irudi eta marra gisa, Lertxundik sarrera politikak egin dizkie testuei, irakurketaren abentura gonbitea eginez: «Lauaxeta urruti dagoela esaten dugu. Urruti nondik? Irakurle nagiondandik? Zain gauzka». Berria da, nik dakidala, Leteri egindako omenaldia. Badu, dudarik ez, bere une magikoa eta hunkigarria DVDak Xabier Leteren hitzak -eta irudia- bildu dituenean, 'Bianditz' testuaren irakurketa agertu duenean.

Elkarrizketa batean, Anjel Lertxundik haxe aitortu du: Lana «Gure hiru poeta handiengana hurbiltzeko modu bat. Gure lanak lagunduko ahal du haiena ikusgarriagoa egiten». Hiru poeta sinboliko dira hemen aurkezturikoak, metaforan eta beste mundua, idealetan sinetsi dutenak. Addenda batekin, baina; Rikardo Arregiren poema bat ere jarri dutelako, poetak hilda ez daudela adierazgarri gisa. Antologia ederra ordu bete eta hamaika minutuan.

Kirmen Uriberen hitzekin ondu den 'Jainko txiki eta jostalari hura', ordea, poetak egin dezakeen liburu berri baten esbozo gisa ikusten dut. Egia esateko liburu balitz bezala irakurri dut CD hau, ez soilik kantuetan agertzen direnak baino testu gehiago direlako, eta ez dira ahanztekoak testu sorta zabalten duen 'Tanka', eta batez ere bukaeran jarri den, eta estetika oso baten laburpena den 'Praileaitzeko xamanaren gaineko gogorazioak'. Prosa lirikoan egindako ipuina dirudi: «Kosmosa behatu, baina etxeko sukaldari ere kasu egin. Naturarekiko lotura eta norbera. Horiexek poesia idazteko behar diren keinuak». Eta oso gogoko duen Seamus Heaney poetaren hitzak ekarri ditu gure hizkuntzara.

Diskoan agertzen diren testuetan estrategia bikoitza erabili da. Kantu itxura duten poemak, poema paraleloak eta sinpleak, sinplerik hemen badago, musika eta kantatu egin dira; konplexuenak, ordez, poetaren ahotsean eman dira. Agian, umore poemaren batek ('Gure Tximist' bezalakoak) ez lukete tokia izango liburu batean. Baina uste dut liburu kume horretan badirela hiru lau poema oso kontuan hartzekoak. Maitasun poemak adibidez, diskoari izena eman dion 'Jainko txiki eta jostalari hura', adibidez, edo niretzako Kirmen Uriberen poesiaren adibide ederra den 'Urte zahar iluntzea', non maitasunaren indarra irudi indartsu batekin azaltzen den.

Hiru poema dira oso loturik daudenak gure egoerarekin. Agirre lehendakariaren etsipen una azaldu duen 'Lehendakaria deserrian', adiskide galduaren oroimenean idatzitako 'Kideari', eta desberdintasuna ulertzeko, eta biktimen agerbidean agerturiko 'Gutariko bakoitza'. Bada testuetan sakontasun berezia, 'Txoriak neguan' poemaren agertzen den bezala.

Liburu berri baterako ataria. Berri on. 'Jainko txiki eta jostalari hura'.

Antzerkiaren zeremonia

✪ JAVIER ROJO

Antzerkiaren egoera, orokorrean, eta euskal antzerkiarena bereziki (nola esan hau, inor ofendituta sentitu gabe?), ez da oso pozik egoteko modukoa. Orokorrean hori gertatzeko arrazoiak antzerkiaren ondoan dauden beste ikuskizun mota batzuekiko lehia ikus daitezke, baina gure kasuan euskal kulturak hiritartzeko eta burgesteko izan dituen arazoetan ere antzeman daitezke. Testuinguru hau kontuan hartuta, interes berezia hartzen du Jaime Valverde Rodriguezek eskaintzen digun saiakerak, 'Ander Lipusen antzerkigintza: eritua, kultura eta ikuskizuna' izenburua duenak eta Becerro de Bengoa saria irabazi zuenak. Izanburuan ikus daitekeenez, saiakera honetan Ander Lipus ezizenez ezaguna den antzerkigilearen ibilbidea aztertzen da. Horretarako, antzerki naturalistaren aurka altxatzen diren bestelako antzerki moten oinarriak aztertzen dira, Ander Lipusen antzerkigintza ikuskizun burges moduan ulertzen den antzerki horretatik aldentzen da-eta. Eta oinarrian Antonin Artauden teoriak agertzen dira. Literatur testu baten ohiko antzeppenaren aurrean bestelako antzerki motak azaltzen direlarik alde edo moldez ondorio nagusi hau ateratu daiteke: antzerkia ez da, ezin da izan, ikuskizun bat; beste gauza bat da, bizitza bera. Izan ere, antzerkian ez da ezer antzeztzen, antzerkian bizitza gertatzen da, eta hori hala delarik, antzerkigile eta ikusleen arteko mugak nolabait hautsita suertatzen dira, ikusleak ez baitira ikusle soil.

Valverderen liburuaren izenburuan agertzen diren hitz horiez gain (errituala, kultura, ikuskizuna), bertan aipatzen diren beste hiru kontzeptu hauek ere hartzen dute berebiziko garrantzia antzerki hau azaltzean: espiritualtasunak, tradizioak eta komunitateak. Honelako antzerki batera doana ez doa ikuskizun bat ikustera, baizik-eta zeremonia batean parte hartzera. Antzerkiak, beraz, kutsu erlijiosoa hartzen du eta bertara hurbiltzen dena komunitatearekiko loturak sendotuko dituen erritu bat berritzera doa. Horregatik, honelako antzerkiak interes handia erakusten du burgestu aurreko forma tradizionalak berpizteko. Eta antzerkiak ikuskizun moduan beste ikuskizun mota batzuekin lehia-tzeko dituen eragozpen materialak ikusita, badirudi horixe izan beharko litzaitekeela bere esparru naturala.

ANDER LIPUSEN ANTZERKIGINTZA...

Egilea: J. Valverde. Saiakera. Argitaletxea: Arabako Foru Aldundia. 124 orr. Gazteiz, 2013. Salneurria: 12 euro

Baina nago agian honetan ere ez ote garen berandu heldu, inon ez dauden espazio postgeografikoak (William Gibson nobelagilearen hitzetan esatearren) nagusitzen ari zaizkigularik.

LABUR-LABUR

Basauriko MAZ jaialdiko kartela ezagutu dugu

P. S. G.

MAZ Basauri jaialdiak iragarri ditu jada aurtengo edizioan parte hartuko duten musika taldeen izenak. Antolatzaileek maiztzeke hiru larunbat aukeratu dituzte oraingoan (17a, 24a eta 31a, hain zuzen ere), Basauri estilo guztietako doinu janzteko asmoz. Social Antzokiak Russian Red, Smile, Zea Mays, Willis Drummond eta Señores taldeen emanaldiak hartuko ditu. Gainera, The Pains Of Being Pure At Heart talde estatubatuarra igoko da taula gainera ere. Kontzertuak ez ezik, disko jartzaileak egongo dira ere Maz Basaurin. Besteak beste, We Are Standard, El Culpio Asesino, Las Tea Party, Planetaleta, Optigan1, Mr. Chase, Dino Velvet, Les Alsborgach eta Penny Lane arduratuko dira musika jartzeaz. Bestalde, doako emanaldiak antolatuko dituzte. Lehenengo larunbatean Txikimaz ekimena egingo dute, etxeko txikienei zuzenduta. Horrez gain, aipatutako



Aiora Renteria kontzertu batean.

hiru larunbatetan arituko dira Juanita y Los Feos, Novedades Carminha, Ricardo Vicente, The Great Barrier, Ero eta La Hora del Primate. Galdu ezingo den hitzordua, zalantzarik gabe, eta publiko asko hartuko duena.

Kashbad taldeak maiatzean ekingo dio bere birari

Duela aste batzuk iragarri zuen Kashbad musika taldeak agertokietara itzuliko zela, eta aste honetan jakinarazi dute maiatzean abiatuko duten bira nondik igaroko den. Aurreikusitakoaren arabera, maiatzaren 3an emango dute lehenengo zuzeneko, Hazparnen. Maiatzaren 16an Tolosan arituko dira eta, hurrengo egunean, Gasteizen. Maiatzaren 20an beste bi emanaldi gehiago iragarri dituzte: hilaren 22an Bilboko Kafe Antzokian izango dira eta 31n, Atarrabian. Ekainean hitzordu bakarra dute; hilaren 7an Errenterian joko dute. Zaleak zain zeuden berri hau noiz iritsiko, eta ziur poz handiz hartuko dutela.

We Are Standard 'The Clash' en mozorroekin dator

:: Astelehenean kaleratu zuten We Are Standard taldearen 'We Are Standard plays The Clash' diskoa. The Clash taldearen omenezko lan honetan, bederatzi kantu jaso dituzte. 2012ko abenduaren 29an Bilboko Kafe Antzokian eman zuten kontzertuaren ostean jaiotako proiektua da hau, hain zuzen ere. 'Day' ren grabazioa bukatuta zuten orduan, baina diskoa publikatu gabe zegoen artean. «Grabazioekin eta abesti berriak behin eta berriz entzutearekin nazkaturik, ideia bikaina izan zen beste talde baten kontuak abestea», getxoztarren esanetan. Esan bezala, Bilboko emanaldia duela urtebete inguru izan zen, eta sarrera guztiak agortu zituzten

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Nevadako egunak

Bernardo Atxaga. Pamiela

2 Hnyu illa nyha majah yahoo

Joseba Sarrionandia. Elkar

3 Zaindari ikusezina

Dolores Redondo. Erein

4 Esan eta egin

Alex Sardui. Baga Biga Produktzioak

5 Martutene

Ramon Saizarbitoria. Erein

EZ FIKZIOA

1 Hitzunpolisa-euskaltasunaren...

Jon Sarasua. Pamiela

2 San Mames historia eta memoria

Joseba Moro Aguayo. Athletic Club

3 Gazteizko historia inoiz kontatu ez...

J. S. Tejada / E. Inclán. Ediciones más que rutas

4 Nafarroa-Euskal estatuaren historia...

Aitor Pescador / Bixente Serrano. Labrit

5 Lauaxeta / Lizardi / Lete

Anjel Lertxundi / Antton Valverde. Pamiela